

## Hitz elkartuen kontaketa

HABEren 2024ko azterketaldiak arautzen dituzten ebazpenek honela diote:

**“Hitz-elkarketak Ebaluazio eta Egiatztatzerako arloak horri buruz emandako irizpideei jarraikiz zenbatuko dira, Euskaltzaindiak hitz-elkarketak idazteko arauen arabera.”**

### KONTAKETA-UNITATEA

Erabili izan dira hitza ez diren beste kontaketa-unitate batzuk (karakterak, lerroak...), baina beste formula horiek, arazoa konpontzetik urrun, are nahasmen handiagoa sor dezakete, edo kontaketa ez-parekagarriak ahalbidetu (lerroaren luzera edo letraren tamaina dela eta). Beraz, aurrerantzean ere kontaketa-unitatea hitza (edo unitate lexikoa) izan dadila proposatzen dugu.

Baina, zer kontsideratuko dugu hitz edo unitate lexiko? Bada, **bi espazioren artean –edo espazio baten eta puntuazio-zeinu baten artean– idatzitako elementu beregain oro.**

Hitz elkartuekin nola jokatu?

- Bereizirik idazten direnak bereizirik zenbatu (beraz, **bi hitz**).

- Aposizioak: *Bidasoa ibaia,...*
- *egin, eman, hartu* eta *eragin* aditzekin osatzen diren aditz-elkarteak (*lo egin*)
- *etxez etxe* moduko bikoiztapenak,
- *egin berri* modukoak,
- *mahai gainean* gisako posposizioak,
- bigarren osagaia *bila, eske* edo *falta* duten elkarteak,
- lehen osagaia *erdal, euskal, giza* eta *itsas* duten elkarteak, ihartuak ez diren neurrian,
- lehen osagaiaren amaierako  $>a<$  galtzen dutenak (*biologi azterketa*).

- Marra batez elkartuta idazten direnak, era honetara:

a.- Marra aukerakoa denean, **bi unitate gisa** zenbatu:

- *eguzki lore, eguzki-lore* moduko izen elkartu arruntak,
- *kale garbitzaile, kale-garbitzaile* modukoak.

b.- Marra nahitaezkoa denean (eta beraz, hitz-elkarketa hori zatitzerik ez dagoenean), **hitz edo unitate lexiko bakar gisa** zenbatu:

- *gorri-gorria* moduko bikoiztapen indargarriak,
- *apurka-apurka* bezalako bikoiztapenak,
- *seme-alabak, zuri-gorri* modukoak,
- *barra-barra, plisti-plasta* bezalakoak,
- *Ezkio-Itsaso* moduko leku-izen elkartuak (bi hizkuntzatan datozenean, ez: *Lizarra / Estella*).

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

- Elkarturik idazten direnak hitz bakar modura zenbatu:

- *jarleku* moduko elkarteak,
- *aldagaitz* bezalako izaera-elkarteak,
- *odolustu* moduko izen-elkarte arruntak,
- bigarren osagaia *-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe* edo-ta *-gintza* duten elkarteak,
- bigarren osagaia *-aldi, -buru, -gizon, -une, -kide -ume, -orde* duten izen-elkarteak,
- lehen osagaia *aurre-, azpi-* eta *-gain* duten izen elkarteak,
- *lauburu* moduko elkarteak.

Laburtuz:

Hitz elkartuen kontaketa honela egingo da:

- Bereiz idazten direnak bereiz kontatu (**beraz, bi unitate**): *Larramendi kalea, amore eman, hasi berri, gerra aurretik, diru eske, giza baliabide...*

- Marraz idazten direnak:

- Marra aukerakoa denean: **bi unitate gisa** (*lan-hitzarmen, garapen maila, arazo-iturri...*)
- Marra nahitaezkoa denean: **unitate bakar gisa** (*gorri-gorria, osaba-izebak, bat-batean...*)

- Elkarturik idazten direnak: **unitate bakar gisa** (*egongela, odolustu, ehunzango...*)

Gaizki idatzita daudenak, ongi idatzita baleude bezala zenbatuko dira\*.